

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Miguel Izuk VII. Martin de Azpilicueta saria jaso du Nafarroako sinboloei buruz egindako azterketa juridikoari esker

María Ángeles Jiménez Riesgok accesita lortu du 1885. eta 1936. urteen arteko Iruñeko zabalguneei eta hirigintza-politikari buruz egindako lanari esker

Viernes, 27 de mayo de 2011

Lehen lehendakariordea eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuko kontseilariak VII. Martin de Azpilicueta saria entregatu dio Zuzenbidean doktorea den Miguel Izu Bellosori, "El régimen jurídico de los símbolos de Navarra" lanari esker.

Ekitaldia Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko (NAPI) Pío Baroja artean egin da, eta Filosofia eta Letretan doktorea den Maria Angeles Jimenez Riescori accesita ere eman diote, "La construcción de una ciudad: ensanches y política municipal de vivienda (Pamplona, 1885-1936)" lanari esker.

Sari nagusia, administrazio publikoen jarduerari, Nafarroako sektore publikoari eta foru zuzenbide zibilar buruzko ikerketak eta azterlanak sustatzeko sortu zen, eta 12.000 eurokoa da. Halaber, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Zerbitzuak Miguel Izu Bellosoren lana argitaratuko du. [Dagoeneko liburu horren 800 ale editatu ditu](#), eta horren ondorioz Pro Libertate bildumaren 24. alea izan da. Accesita 6.000 eurokoa da [María Ángeles Jiménez en lana](#) ere argitaratu dute. Dagoeneko 500 ale editatu dituzte.

Caballero lehendakariordeak adierazi du bi lanei esker "gaur egun, ikerketan eta bibliografian dauden hutsuneak beteko dira", Nafarroako sinboloak eta XIX. mendetik aurrera Iruñean gertatutako hazkundera ikuspegi juridikotik aztertzean. Ekitaldian Gregorio Eguilaz, Funtzio Publikoaren zuzendari orokorra, ere izan da.



Eguílaz, Jiménez, Caballero lehendakariordea eta Izu, VII. Martin de Azpilicueta Saria banatu eta gero.

Miguel Izu Beloso
(Iruñea, 1960) Zuzenbidean
dokorea eta Soziologia eta
Politika Zientzietan lizentziatu

da. Foru Gobernuaren funtzionarioa ere bada, eta 2002. urtetik Nafarroako Administrazio Auzitegiko kidea. Administrazio Zuzenbideko irakasle elkartu moduan aritu da Nafarroako Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Iruñeko Udaleko zinegotzia izan zen 1995. eta 1999. urteen artean, Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateko lehendakaria aldi berean eta Nafarroako Parlamentuko kidea 2003. eta 2007. urteen artean, Ezker Batuko ordezkari moduan. Zuzenbidearen munduarekin lotutako hainbat liburu argitaratu ditu. Bestalde, aldizkari espezializatuetan ere artikulu ugari argitaratu ditu.



Sari banaketara bertaratutako publikoa
NAPIko Pío Baroja aretoan.

Miguel Izu Bellosok VII. Martin de Azpilicueta sarirako aurkeztu duen ikerketa sinbolo politikoen araubide juridikoari buruzkoa da. Hartarako, haien jatorria eta bilakaera historikoa ikertzeaz gain, Nafarroako sinboloak eta sinbolo nazionalak ere aztertu ditu, eskualdeko, bertako eta nazioz gaindiko sinboloen aurrekari eta eredu moduan.

Egileak, besteak beste, hauek azaldu ditu: sinboloak definitzeko eta haien erabilerak arautzeko zer arau erabili dituen, zer helburu betetzen dituzten, botere publikoa identifikatzeko jatorriz zuen funtzioa eta gaur egun dituen gizarteratze eta mobilizazio politikokoa. Horrela, gaur nabarmendu duenez, historialariek asko ikertutako baina ikuspegi juridikotik oso gutxi aztertutako eremuari ekin dio. Azpimarratu du "asepsia akademiko" osoz egin duela lana, eta alde batera utzi ditu ikuspegi politikotik aztertutako gaiaren inguruan sor daitezkeen "polemikak".

Bestalde, María Ángeles Jiménez Riescok accesita irabazi du Iruñean 1885. urtetik aurrera hiriak izandako hazkundera aztertu duen lanarengatik. Biztanle behartsuek etxerik ez zuten, Nafarroan, XIX. mendearen bukaeran sortu zen etxebizitza higieniko eta merkearen behararen ikuspegitik ekin dio lanari. Horrela, 1890. eta 1900. urteen artean gaizki esandako hiriaren lehen zabalgunea eraikitzea nola, noiz eta zergatik proposatu zen eta 1900. eta 1920. urteen artean hartu ziren neurriak aztertu ditu. Azken urte horietan hain zuzen hasi zuten kanpoko benetako zabalgunea eraikitzen. Sustatu ziren gizarte-etxebizitzaren proiektu motak eta haiek eraikitzeko arrazoiak berrikusi ditu.

María Ángeles Jiménez Riesco Historian doktoregoa lortu zuen Historian Nafarroako Unibertsitatean, eta, gaur egun, ikertzaile bisitaria da Londresko Politika eta Ekonomia Zientzietako Eskolako Espainiari buruzko Azterketa Garaikideen Zentroan. Parte hartu duen ikerketa-proiektuen artean hauek nabarmentzen dira: "El discurso de la Modernidad", Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutakoa edo "Modernización económica y cambio social en Navarra, 1939-1975. Un intento de comparación" proiektua, Foru Gobernuaren laguntza izan duena. Halaber, etxebizitza azterketekin zerikusia duten argitalpenetan ere laguntzaile moduan aritu da.

Datorren urteko sarietan izena emate epea ere hasi da

[2011ko Martín de Azpilicueta sarian](#) izena emateko epea otsailean hasi zen, eta abuztuaren 31n bukatuko da. Saria banako pertsonen eta taldeen egindako eta argitaratu gabe dauden lan onenei ematen zaie. Gaiari dagokionez, hauek izan daitezke: Nafarroako Foru Erkidegoko erakundeak eta antolamendua; Foru Zuzenbide Zibila; giza baliabideen kudeaketa; aplikazio soziologikoak, modernizazioa eta Nafarroako Administrazio Publikoen kalitatearen hobekuntza; sektore publikoaren arrazionalizazioa; politika ekonomikoa, besteak beste ekonomiarekin, ogasunarekin, aurrekontuekin eta kontabilitate publikoarekin lotutako gaietan; lurralde eta ingurumen politika; lurraldearen antolamenduarekin, hirigintzarekin, etxebizitzarekin, ingurumenarekin, landa-garapenarekin eta mendi-eremuen garapenarekin, mendiekin, herri lanekin, garraioekin eta horren antzeko sektoreekin zerikusia duten gaiak.

Lanek, gutxienez, 150 orri izan behar dituzte eta gaztelaniaz, euskaraz edo Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako batean (kasu honetan gaztelaniaz ere itzulita) idatzita egon beharko dute). Banakako pertsonak eta taldeek lor dezakete saria, betiere aurreko deialdietan irabazi ez badute.

Sariak lanetan errege absolutuen boterearen muga etikoak defendatu zituen Nafarroako katedradun, jurista eta teologoaren izena du: Martín de Azpilicueta, alegia. Haren lanen artean 'Manual de Confesores' (1552) nabarmendu daiteke. Martín de Azpilicueta (Barasoain -Nafarroa-, 1492 - Erroma, 1586) jazarri ere egin zuten, Inkisizioaren aurrean Karrantzako Fray Bartolome nafar ospetsua defendatu zuelako.

Juan Cruz Alli Arangurenak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakasle eta foru parlamentariak irabazi zuen iazko Martín de Azpilicueta saria, 'Los convenios económicos entre Navarra y el Estado. De la soberanía a la autonomía armonizada' lanari esker. Duela lau urte, 2007an, Francisco Javier Arcelus, Pablo Arocena, Fermín Cabasés eta Pedro Pascual Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakasle eta ikertzaileek irabazi zuten saria, Nafarroako udalek ematen dituzten zerbitzuen eraginkortasunari buruzko egindako lan batengatik. Gainerako deialdietan lehen saria eman gabe geratu zen, edo aipamen bereziak banatu ziren.